

## URTEKO HAMAHIRUGARREN IGANDEA B

### Lehen irakurgaia

( *Herioa ez du Jainkoak egin* )

#### Zuhurtzia liburutik

1, 13-15; 2, 23-24

- 13 **Jainkoak ez du herioa egin,  
ez du atsegin bizidunak hil daitezen.**
- 14 **Gauza guziak irauteko kreatu ditu;  
munduko izakiak osasungarri dira,  
ez dute beren baitan pozoin hilgarririk,  
eta ez da herioa nagusi lurraren gainean.**
- 15 **Ezin hila baita zuentasuna.**
- 2,23 **Jainkoak gizakia ez-hilkor izaiteko kreatu du,  
eta bere izaiterearen idurira egin du.**
- 24 **Bainan debruaren bekaizkeriaz sartu da herioa munduan,  
eta harenak direnek jasanen dute.**

Hasiera eta Zuhurtzia liburuek hastapen bera dute : gogoetak gizadiak. Biek arrangura berak dituzte : bizia, hiltzea eta gizonen loturak Jainkoarekin.

Liburu horien egileak juduak dira, Elkargoaren esperientziak haziak, baina beti paganoen kotsuaren ondoan baitira, arrangura daude, fedearen zintzotasuna eta baikortasuna atxiki nahiz. Huna zer dion Zuhurtzia liburua : « *Eta egin zuen guzia biziki ona zela ikusi zuen Jainkoak...Jainkoak jendea bere izaiterearen idurira egin zuen.* » Bai eta ere : « *Jainkoak, bere iduriko kreatu zuen jendea, Jainkoaren idurira kreatu zuen.* »

Erranaldi aipatua bai, baina ulertzen dituguia horren ondorioak. Zinez, Jainkoak, bere idurira eginak bagitu, betiere bizitzeko eginak dira : « *Jainkoak gizakia ez-hilkor izaiteko kreatu du, eta bere izaiterearen idurira egin du.* »

Orduan, Jainkoak huts egin ote du? Ez. Gizona libro egiteko irriskua hartu du. Gorputza hiltzen da, baina bestelakatzeko, pinpirina har batetik bestelakatzeko den bezala. Baina, hemen, Liburu Sainduak aipatzen duen herioa izpirituarena da, Jainkoarengatik urrutzea : « *Bainan debruaren bekaizkeriaz sartu da herioa munduan eta harenak direnek jasanen dute.* »

Zuhurtzia liburuan, lehenbiziko bost kapituluetan, justuak eta fedegabeak elgarren kontra dira ; justuak dira, hemen berean Jainkoaren biziaz bizi direnak. Aldiz, fedegabeak dira, Jainkoarengatik urrun direnak.

Zuhurtzia liburuaren egileak ezagutzen zuen Salmo hau. Egia horiek erraitearekin, bere garaikideak sustengatu nahi zituen, zeren paganoak buruaren altxatzen ari baitziren. Zuhurtzia liburua juduentzat izkiriatura izan zen, Alexandria hirian, 50 edo 30 Jesu Kristo aitzin, fededunek paganoeri buru egin behar zutelakotz. Liburuaren titulua da : « *Salomonen zuhurtziaren liburua* », Salomon hila zelarik 900 urte hartan. Horra hor frogak, juduentzat egina zela, paganoen arrazoineri ihardokitzeko.

Pasarte huntan gaia heriotzea da. Juduek ala grekoek badakite denek hil behar dutela, baina, heriotzearen aitzinean badire bi jokabide : paganoarena : egin dezagun nahi duguna, plazer osoa har dezagun, denak ahantziko baitira laster. Heien gogoetak hauek dira : « *Arrazoin makurrez elkarri diote : « *Laburra eta trixtea da gure bizitza ; azkenerat heltzean ez da ihesbiderik eta guk dakigula, nehor ez da itzuli Hilen Egoitzatik...Beraz, goza gaitzen oraiko ontasunez ; goza gaitzen mundu huntaz, gazte eta suhar.* » (Zu 2, 1...6)*

Juduarena bertzelakoa da. Harentzat, oraidanik, gure bizia eternitate-hazia da : « *Jainkoak gizakia ez-hilkor izaiteko kreatu du eta bere izaiterearen idurira egin du.* » Menturaz, lur huntan ongi bizi direnak ez dira behar den bezala saristatuak, baina Jainkoak justizia egiten du.

Zuzengabekeriaren aitzinean, fedea duenak dio: « *justizia betierekoa da.* » Bai, paganoak tronpatzen dira: « *Ez dituzte ezagutzen Jainkoaren asmo gordeak, ez dute Jainkozaletasunari dagokion saririk espero, ez dute sinesten bizitza estakurugabeari dagokion ohorean.* »

Huna azken erranaldia: « *Debruaren bekaizkeriaz sartu da herioa munduan eta harenak direnek jasanen dute.* » Hemen ez da gorputzeko heriotzea aipu. Heriotze izpirituala da aipu, Jainkoa gabe izaita. Zuhurtzia liburuaren arabera justuak baizik ez dira piztuko, paganoak aldiz ez. Jesu Kristoren etortzea igurikatu beharko da sinets ahal dezagun denak piztuko girela, ezen : « *Jainkoa, gure bihotza baino handiagoa da.* »

## **Salmoa 29**

**Leloa: Jaunari kantu: zerutik gaitu eskuz hartu**

**Zure alderat, nere Jainkoa, nere Jauna,  
Egin dut oihu, eta zuk eman osasuna.  
Atera duzu nere arima ifernutik,  
Zaindua nauzu hil-ziloraino lerratzetik.**

**Jainko Jaunari haren gizonak has kantari:  
Eman gogotik eskerrak haren izenari.  
Haren hasarrek apur bat baizik ez diraute;  
Bizi guzian gu maitez harek begitarte.**

**Nuen dolua egin dautazu dantza jauzi,  
Kapa kendurik betiko bozez nauzu jantzi.  
Zor dautzu, Jauna, nere arimak soinu kantu;  
Nahi zaitut zu beti ta beti goraiatu.**

29. Salmoa laburra da, bainan ixtorioa behar da jakin oso osoa, ulertzeko :

Asma dezagun norbeit osin batetarat eroria. Oihu egiten du, laguntza galdeginez eta erranez hilik baino baliosago izanen dela bizirik. Zonbeit ados dira gizona ziloan ikustearekin, trufa egiten diote. Hura beti laguntza galdez ari da, norbeit menturaz urrikalduko zaiolakoan. Norbeitek entzun ditu haren oihiak eta zilotik atera. Norbeit hura Jainkoa bera da. Argirat atera delarik, plazerrarekin, gizona jauzteka hasten da : « *Zure alderat, nere Jainkoa, nere Jauna, egin dut oihu, eta zuk eman osasuna. Atera duzu nere arima ifernutik, zaindua nauzu hil-ziloraino lerratzetik. Jainko Jaunari haren gizonak has kantari: eman gogotik eskerrak haren izenari.* »

Egia erran, Salmo guzietan bezala, irakurgai huntan bi mail behar ditugu ikusi. Ixtorio hunek erakusten dauku gizon bat eroria zilo batetarat. Bainan alegia bat da : Babiloneko desterrutik itzuli zelarik, herria bozkariatzen zen, Egiptoko itsasotik atera zelarik bezala. Orduan ere kantu, dantza egin zuen. Babiloneko presoaldia osinerat erortzea bezala izan zen, eta ainitzek pentsatu zuten populua ez zela sekulan handik ateratuko. Etsaiek goxoki irriten zuten haren ahulezia ikusiz.

Zorigaitz horren denboran, apezek, profetek sostengatu zuten herria, esperantza atxik zezan: « *Zuri dei egin nauzun, Jauna. Jaunari dei egin nion!..* » Herriak, otoitz egiten zuelarik, hau bezalakoak ateratzen zituen : « *Zer irabaziko duzu hiltzen banaiz...* » Salmo hau izkiriatua izan zelarik herriak ez zuen hilen piztean sinesten, uste zuen « Sheol » deitu lurpeko egoitza ilun batean egonen zela. Orduan, Jainkoari erraiten zion: « *Zer irabaziko duzu hiltzen banaiz, errautsak goretsiko ote zaitu? Zure leialtasuna mezutuko ote du ?* »

Eta mirakuilua gertatu da, Jainkoak salbatu du bere herria: « *Zure alderat, nere Jainkoa, nere Jauna, egin dut oihu, eta zuk eman osasuna. Atera duzu nere arima ifernutik, zaindua nauzu hil-ziloraino lerratzetik.* » Populu erreberitzearen ixtorioa kondatua da irudien bidez. Hala nola

Ezekielen ikuskaria : zelai bat hezurrez betea, eta hezurak haragiz beztitzen eta bizitzen hasten. Berantxago herriak onartu zuelarik hilen piztea, testo horiek beste argi batekin irakurtu ziren.

« *Nigarra dantza bilakatu dautazu, dolu-jantzia besta jantzi... » Hemendik goiti, piztean sinesten dutenentzat, erranaldi hunek beste sentsu bat hartzen du, “Alleluia” kantatzeko gutizia emaiten du : « *Jainkoak ereman gaitu uztarpetik argirat, trixteziatik bozkariorat, dolutik bestarat, ilunbetarik argirat, uztarpetik erospenerat. Hortakotz kantatzen diogu, Alleluia!* »*

Bainan, ustegabeen erortzen ahal da putzurat. Salmo egileak erraiten dauku Izraeli hori gertatu zitzaiola, eta hori izan zela erakaspena Babiloneko deserrian. Ordu artio, Izraelek konfiantza handia bazuen bizian: « *Lasaialdian neure baitan egiten nuen: « Ez naiz sekula kordokatuko. »* Alta, profetak arizan ziren Izrael ezazolkeriatik irartzartu nahiz. Babiloneko hirian ukan zuen denbora gogoetak egiteko zendako zen zoritgaitzean, eta orduan gertatu da haren jokabidearen ondorioa: « *Zure aurpegia gorde dautazu eta izitu naiz.* » Ez badugu nahi berriz erori, leialtasunean behar dugu bizi: « *Nahi zaitut zu beti ta beti goraiatu.* »

## Bigarren irakurgaia

( *Kristo bezala, izan gaiten eskuzabal* )

**Jondoni Paulok Korintiarreri 2a: 8, 7.9; 13-15**

**Haurrideak,**

- 7 denetarik ausarki ukan duzue: fedea, mintzatzeko dohaina, jakintza, kartsutasuna eta zuenganako nere maitasuna; nasaia izan bedi ere zuen eskuzabaltasuna.**
- 9 Badakizue Jesu Kristo gure Jauna zein eskuzabala den: aberats zelarik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izaitiaz zuek aberats egiteko.**
- 13 Ez duzue beharrean erortzerik, besteen soleitzeko, guzien arteko berdintasuna dut bilatzen.**
- 14 Aldi huntan, zuen soberakinak heien eskasia beteko du, egun batez heien soberakinak zuen eskasia bete dezan;**
- 15 hola berdintasuna izanen da, Liburu Sainduak manaz dion bezala: Ainitz bildu zuenak ez zuen sobera, eta guti bildu zuenak ez zuen eskas.**

Sosaren galdegitea beti neke da. Hemen Paulok sosa galdegiten du, batian goxoki, bestian trufa batekin bezala. Ez ginuen Paulo hola ezagutzen. Gosetea izan zen Judean, eta bereziki Jerusalem, 46-48 Jesu Kristo ondoan. Flavius Josephe historialariak kondatzen du Mesopotamiako erregina batek ekarrarazi zituela ogi bihia eta pikoak Alenxandriatik eta Xipretik.

Paulok haste hastetik dirua biltzen zuen pagano girixtinotuenganik Jerusalemeko girixtinoentzat, zeren haueri esker baitzuten ukan Berri Ona. Ez da ahantzi behar Jerusalemeko kontzilioan elkartasuna sustatua izan zela. Huna zer erraiten duen paulok berak: « *Ezagutu zuten bada, Jainkoak eman dautan dohaina eta elkarteko habetzat hartuak diren Jakobe, Petri eta Joanik eskua eman zaukuten Barnaberi eta bieri elkartasun-seinaletzat: guk paganoen artean lan eginen ginuen eta heiek juduen artean. Hau baizik ez zaukuten eskatu: hango behartsuez oroitzeko. Eta hortarat entseatu naiz beti.* »

Ondoko urtean Paulok urruneko fededuneri laguntza eskatu zioten : « *Alabainan, Mazedoniakoek eta Akaikoek diru bilketa baten egiteko borondatea ukan dute, Jerusalemen diren haurride behartsuen laguntzeko. Borondatea, diot, bainan zorra ere bazuten heien alderat : zeren*

*paganoak izpirituzko ontasunetan heien partaide izan badira zuzen baita lurreko ontasunetan heien laguntza ukan dezaten. »*

Bainan hitzak ez dira aski. Iduri du korintiarrek ez direla ados. Paulok, halako malezia batekin adiarazten du beste girixtino elkarteek plazer hartu dutela behartsuen laguntzeaz : « *Haurrideak, Jainkoak Mazedoniako eliz elkarreetan bere onginahia nola erakutsi duen jakinarazi nahi dauzuet. Atsegabe handiak jasan behar ukan dituzte, bainan heien bozkarioa neurrigabekoa izan da eta, gabezia gorrian izanik ere, eskuzabal ageru dira biziki. Ahal zutena eta gehiago ere eman dutela lekuko naiz. » Berriz ere Paulok dio : « *Orai egintza hori bururaino eremazue, hola hastapeneko xede onaren parekoa izanen da egintzaren bururatzea ere ahal duzuenaren arabera. »**

Zenbaitek erraiten bide zuten ahalik ez zutela, bainan Paulok errepikatzen zioten beti: « *Alabainan, xede onetan denari eman dezakeena onartzen zaio; ez zaio besterik eskatzen... ez duzue beharrean erortzerik besteen soleitzeko, guzien aldeko berdintasuna dut bilatzen. » Gero Paulok aipatzen du nola desertuan ukan zuten jatekoa nasaiki.*

Azkenean : « *Badakizue Jesu Kristo gure Jauna zoin eskuzabala den, aberats zelarik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izaiteaz zuek aberats egiteko. »*

## **Ebanjelioa**

### *Alleluia, alleluia*

**Jesu Kristo gure Salbatzaileak ezeztatu du herioa,  
Berri Onaren bidez dirdirarazi bizia.**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 5, 21-43**

- 21** Jesus itsasoaz bestalderat untziz itzuli zenean,  
jendalde handia bildu zitzaion.  
Bera itsas ondoan zagon.
- 22** Heldu da zinagogako buruzagietarik bat, Jairo deitua.  
Jesus ikustean, haren oinetarat erori, eta otoizka eskatzen zion :
- 23** “ Alaba ttikia hilzorian dut.  
Zato eskuak haren gainean ezartzera, senda dadin eta bizi.”
- 24** Jesus harekin joan zen;  
jendalde handia ondotik zoakion, alde guzietarik tinkatzen zuela.
- 25** Bazen han emazte bat hamabi urte hartan odol-galtzeak zituen.
- 26** Mediku askorengatik zernahi jasana zen,  
zituen guziak xahuturik, batere hobekitu gabea;  
Izaitekotz gaizkiago baizik ez zoan.
- 27** Jesusen berri entzun eta, jende artean gibeletik joan,  
eta soinekoa hunkitu zion, bere baitan egiten baitzuen:
- 28** “ Soinekoa bederen hunkitzen badiot, sendatuko naiz.”
- 29** Berehala odol-jarioa gelditu zitzaion,  
eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.
- 30** Ordu berean, Jesus ohartu zen halako indar bat atera zitzaiola,  
eta jendartean itzulirik, galdatu zuen:  
“ Nork hunkitu dauzkit soinekoak?”
- 31** Dizipuluek erran zioten:  
“ Hainbeste jende hertsatzen zaituela ikusten,  
eta nork hunkitu zaituen galdatzen duzu?”
- 32** Bainan Jesus ingururat beha zabilan, hori nork egin zion ikusteko.
- 33** Orduan emazteak, beldurrez ikaran, baitzakien zer gertatu zitzaion,

- oinetarat erori eta egia osoa aitortu zion.
- 34 Bainan Jesusek erran zion :  
 “ Ene alaba, zure fedeak salbatu zaitu.  
 Zoazi bakean, eta sendatua bekizu gaitza.”
- 35 Oraino mintzo zela,  
 zinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, erranez:  
 “ Hil zaitzu alaba. Zertako eman neke gehiago Irakasle Jaunari?”
- 36 Bainan, Jesusek hitz horiek entzunik,  
 zinagogako buruzagiari erran zion:  
 “ Ez izan beldurrik; zuk sinets bakarrik!”
- 37 Nehor ez zuen berekin joaitera utzi,  
 Petri, Jakobe, eta hunen anaia Joani baizik.
- 38 Zinagogako buruzagiaren etxerat heltzean,  
 Jesusek hango nahasmendua ikusten du,  
 jendea nigarrez eta garrasiaka.
- 39 Sartu eta erraiten diote:  
 “ Zergatik holako nahasmendua eta nigarrak?  
 Nexka ez da hila, lo dago.”
- 40 Heiek irri egiten zioten.
- 41 Bainan Jesusek guziak kanpo ezartzen ditu,  
 eta hartzen ditu haurraren aitamak eta berekin zituenak;  
 gero nexka zagon tokirat sartzen da.  
 Haurra eskutik hartu eta erraiten dio:  
 “ Talitha kum “ erran nahi baita: “ Nexka, nik diozut: Jeiki zaitte!”
- 42 Berehala xutitu zen nexka eta ibiltzen hasi;  
 bazituen hamabi urte.  
 Guziak ezin gehiago harriturik gelditu ziren.
- 43 Jesusek zorrozki manatu zioten nehork ez zezan jakin;  
 eta nexkari jatera emaitako erran zioten.

Iduriz, hemen kondatua Kafarnaumen gertatu zen. Hortaz Markek ez dauku xehetasunik emaiten. Hiru ebanjelistek kondatzen daukute gauza bera: Jairok galdegin zuen alabaren sendatzea, gero izan zen emazte batena, eta segidan nexka baten berpiztea. Hamabi urte emaztea eri zela, haurrak hamabi urte zituen. Medikuek eginahalak eginak zituzten : « *Bazen emazte bat hamabi urte huntan odol-galtzeak zituena...Medikuen askoren ganik zer nahi jasana zen, zituen guziak xahaturik batere hobekitu gabe, izaitekotz gaizkiago baizik ez zoan.* » Horra orai nexkarentzat izkiriatura dena: « *Hil zaitzu alaba; zendako eman neke gehiago Irakasle Jaunari ?* »

Markek nahi du erakutsi gizonen ahalgabetasuna, hobekiago agerrarazteko Jainkoaren indarra, haren indarra hain da handia nun hilak pizten baititu. Markek sendiarazi nahi du ere zer desberdintasuna den Jesusen eta profeten artean. Elik piztu zuelarik Zareptako alarguntsaren semea, eta Elizek Xunamitaren semea, biek, lehenik, Jainkoa otoiztu zuten. Aldiz Jesusek erraiten du Jaiori: «*Ez izan beldurrik, zuk sinets bakarrik. Zergatik holako nahasmendua eta nigarrak? Nexka ez da hila, lo dago.* » Hola Markek erraiten ahal du Jesus dela biziaren Jauna, herioa loaldi bat dela, eta Jesusek iratzartuko gaituela.

Jaioren alabaren piztea gure piztearen irudia da. Jesusek nexka eskutik hartu zuen bezala, gu ere, baxotxa, eskutik hartuko gaitu. Izaik Jainkoaz erraiten zuen bezala: « *Ni, Jauna, zure Jainkoa, eskutik lotzen nitzaizu eta erraiten :Ez beldur izan, nik laguntzen zaitut.* ». Egun batez, gizadi guziari Salbatzaileak erranen du: « *Talitha kum* » erran nahi baitu : « *nexka, xuti zaitte!* » Markek ezagutzen ote zuen, lehen girixtinoen bataio-kantua, Paulok efesoarri izkiriaturiotena: « *Atzar zaitte, lo zauden hori, jeiki hilen artetik eta Kristok argituko zaitu.* »

Nahi balinbadugu Jesusen pizte ahalean parte hartu, baldintza bakar bat baizik ez da, sinestea : « *Ene alaba, zure fedeak salbatu zaitu.* » Markek segurtatzen dauku fedea aski dela. Jairo

zinagogako nausi handia da, bainan emaztea arras xumea, eritasunaren gatik odola galtzen duena. Beraz lohi da legez, jendeen artean egoiten ahal ez dena. Jesusek sendatuko du eta hari esker, emaztea sartuko da bere herriaren batasunean. Marki laket zaio erraitea Jesusek ez duela nahi nehor kanpo egon dadin : hor dugu lekuko lepradunaren ixtorioa. Libro gira trufatzaileen alde izaitera, edo sinestera Jainkoaren baitan, edo urrun egoitera. Markek erraiten dauku oraino: « *Dena ahal du sinesten duenak.* »

Jesusek, hiru dizipulu, beti berak, Petri, Jakobe eta Joani hezten ditu; horiek ziren Itxuraldaketan lekuko izan zirenak, horiek dira izanen Elizaren buruzagi handiak: « *Jakobe, Zefas eta Joani Elizako habetzat hartuak.* »

Jesusek galdegina zioten gertakari horiek nehuri ez aipatzeko : « *Jesusek zorrozki manatu zioten nehor ez zezan jakin.*» Zendako? Menturaz ez zuen nahi jendeek gaizki ulert zezaten egiten zuena, zeren errekesta handia baitzuen. Badugu froga: « *Alabainan, ainitzak sendatu zituen, eta gaitz bat zuten guziak gainerat zoazkion hunki nahiz.* » Urruntxago erraiten du: « *Jesus joaiten zen hiri, herri edo etxaldeetan eriak plazetarat ateratzen ziozkaten. Soinekoaren litsa bederen hunkitzera uzteko otoizten zuten eta hunkitzen zuten guziak salbatuak izan ziren.* »